



**Ospakizun gehiago,
asteburuan, Urnietan.
Eta, datorren astean,
Xoxoka jaietan
murgilduko da** / 2-9

**Emakumeen* Etxea
irudikatzeko parte-
hartze prozesua
abiatuko dute
Andoainen** / 12

**Nahia Patino
Andoaingo gaztearen
aldeko ekitaldi
solidarioa egingo dute
urriaren 19an** / 12



Hitzaldi-sorta, etorkizuneko errepide mapa hizpide hartuta

Gizarteratze-prozesuarekin aurrera darrai Andoaingo Udalak / 10

Parketarrak

Egunik onenak,
elkarrekin euskaraz jolasean



hezen

www.hezen.eus

ANDOAIN

Adinaren arabera antolatuko dira jolasak:

Zabu-Zibu (Helduekin) 3-5 urte: 17:15

Txirrintxon 6-9 urte: 18:15

ASTEARTETAN
Urriak 7, 14, 21 eta 28

Goikoplazan

ASTEAZKENETAN
Urriak 8, 15, 22, 29

Zumea plazan



ANDOAINGO UDALA



Denda Berri elkarte kideak, udaletxeko balkoian. AIURRI

Bost eguneko hitzorduak, jaietan

Denda Berriko kideek bota dute txupinazioa aurtengo Sanmieletan, elkartearen mende erdiko ibilbidea omentzeko asmoz. Mielaren jaitsierarekin eman zioten hasiera bost eguneko egitarauari

Erredakzioa URNIETA

Mielaren etorrerarekin, txupinazioa botata eta suziriak zeruan lehertuta eman zioten hasiera Sanmielei Urnietan. Aurten, protagonismo berezia izan dute egitarauan herriko adinekoek, Denda Berri elkartearen eskutik iritsi baita jaia herrira. Hori horrela, buruhandien eta erraldioen laguntzaz San Juan plaza iritsita, ostegunean, arratsaldeko 19:30ean igo ziren udaletxeko balkoira elkarte kideak, pregoia jendaurrean irakurtzeko. "Arratsalde on urnietarrei eta beste guztiei! Orain dela 50 urte hemen azpian sortu zen Denda Berri elkarte, aiton-amonen etxea", hasi zuen hitzartzea Denda Berriko kideak, "denak hemen ez egon arren, boluntario askoren lanaren ondorio da. Eskerrak eman lan horretan ibilitako denei!". Hala, gonbidapena luzatu zieten Urnietako jubilatuei elkarteak antolatzen dituen eki-

taldietara gertura daitezen, ospakizunerako deia egitearekin batera: "Festak ondo igarotzea opa dizuegu. Gora Sanmiel!".

Txosnagunerik gabeko jaiak

Herriko plaza Txosna Batzordearen aldeko mezuez bete zen jaien hasieran, "Txupinazioa bai,

txosna duinak ere bai" lelopean egin baitzuten bilkura San Juan plazan bertan ekimenaren alde agerturiko herritarrek. Hala, pregoilarien hitza errespetatuta, txupinazioaren aurretik zein ondoren, txosnen aldeko aldarrikapenak izan ziren nagusi jaien hasierako hitzorduan.

Txosnagunearen araudi berria

Ordenantza dagoeneko udaletxeko iragarki-taulan argitaratu da, eta azaroaren 6ra bitarte proposamenak aurkezteko epea dago. Iraileko plenoan hizpide izan zen. EAJ-PNV Agurtzane Mercaderrek honako hau adierazi zuen: "Gobernu-taldearen aldetik txosnak izateko gogoa badago eta ea lortzen dugun denon artean araudia hobetzen eta hurrengo urtean ere txosnak izaten". PSE-EEko Gonzalez bat etorri zen: "Konpromisoak bete egin behar dira. Beraz, aurrera". EH Bilduko Eukene Garmendiak, aldiz, prozedura bestelakoa izan behar zuela iradoki zuen: "Lanketa bat egiten denean, behetik gora, alegazioaren beharrik ez da egoten. Lanketa aurretik eginda dagoelako". Jorge Segurado Urnietako alkateak, azkenik, ekarpenak egiteko gonbita luzatu zien herrikideei.

Jaien hasierako irudiak



Zapia jantzita, prest ziren Sanmieletan murgiltzeko. AIURRI

Nire lehen Sanmielak Ongi-etorria egin zieten udal ordezkariak, jaiak estreinakoz bizi behar zituzten haurrei. Zapia jartzearekin batera, Urnietako erraldoiek dantza egin zieten, kalejira hasi aurretik.



Miela udaletxeko balkoira iristen. AIURRI

Mielaren etorrera Une berezia izan ohi da Mielaren etorrera txupinazioan, Marizulotik herrira gerturatzen den momentua irudikatzen baitu. Jarraian, Denda Berri elkarte kideek, aurtengo pregoilariak, txupinazioa bota zuten, Miela besotan hartuta.



Batzordearen aldeko mezuez josi zen San Juan plaza. AIURRI

Aldarrikapena nagusi Txosna Batzordearen aldeko babesak hartu zuen San Juan plaza, txupinazioan. "Txosnak aurrera" leloa nabarmen entzun zen jaien hasierako ekitaldian. Horrez gain, bestelako elkertasun ekintzak ere izan dira festetan.



Manifestazioa, Idiazabal kalean. AIURRI

Txosnen auzia, agerian

Herriko eragileen zein elkarten azken urteetako parte-hartze txikiena eduki dute aurtengo Sanmielek. Txosna Batzordearen aldeko babes mezuek pisua izan dute jaiek iraun duten bost egunetan

Erredakzioa URNIETA

Aurten ez da txosnagunerik izan Sanmieletan, ez eta Txosna Batzordeak antolaturiko egitarauarik ere. Gainera, hutsunea are ageriagoa izan da, elkartasunez, beren hitzorduek bertan behera utzi dituzten eragileen zein elkarten faltarekin: Zanpatuz mendi-elkartea, Egape Dantza Taldea, Berdeak, Vintage taldea, Manttale... Hori horrela, jaien lehen egunetik hasita, asteburu osora luzatu dira Txosna Batzordearen aldeko babes-mezuak. Ostegun arratsaldean, esaterako, elkartasun-argazkia atera

zuten, Plazido Muxika plazan 150 bat urnietarrek, eta bertan izan zen herriko askotariko elkarte zein eragiletako ordezkariak zabala. Jarraian, behin txosnagunea modu sinbolikoan itxita, guztiak batera, San Juan plazara joan ziren, txupinazoan ere Txosna Batzordeari elkartasuna adierazteko. Jarraian, gauean, La Txama taldearen kontzertuaren aurretik bertso bidez salatu zuten Txosna Batzordeko kideek, azken hilabeteetan Urnietako Udalarekin izandako harremana. Webgunean ikusgai dago bideoa.

Ostiralean izan zen Txosna Batzordeak festei begira deitutako bigarren hitzordua, manifestazioa. Arratsaldeko 18:30ean egin zuten bilkura San Juan plazan, kaleak aldarriz betetze-ko. Herriari itzulia eman zioten, “Ez, ez, ez, ordenantzari ez” edota “Txosnak aurrera” bezalako leloak ahotan hartuta. Manifestazioaren geldialdi batean, herriak gunee autogestionatua izatearen beharra aldarrikatu zuten. Hasitako toki berean amaitu zen manifestazioa, herriarrek txalo artean jaso zuten irakurketa batekin.



Elkartasun-argazkia atera zuten ostegunean txupinazoaren aurretik. AIURRI

Txosna Batzordearen adierazpena



“Urteak dira jada urnietarrak herrian txosnak jartzen hasi zirela, modu batera edo bestera, izen batekin edo bestearekin. Herrian zegoen behar baten isla zen. Alde batetik, herrian bertan aisialdirako tarte bat izatea eta, bestetik, herri izaera eta kohesioa indartzea zuten helburu. Honek forma borobilagoa hartu zuen Poxta Zaharren sorrerarekin. Herriko gazteen antolakuntzaz lortu zen urte batzuk atzera ezinezkoa zirudiena: Urnietan txosnagune bat egotea herriko festetan. Poxta Zaharrek urte luzez antolatu zuen txosnaguneko egitaraua eta, azken urteetan, Txosna Batzordeak hartu du lan hori.

Beti egon da, ordea, bidailagun desatsegin bat, zenbat geratzen den galdetzen duen horietakoa, lagundu beharrean maiz oztopoak jartzen dituen. Herriak gupilaren lana egiten duen bitartean Udalak makilaren papera hartu du zangotrabatuz, burokrazia amaigabea sakonduz edota herriko festen parte izan eta espazio bat edukitzea ukatzen saiatuz.

Udal Gobernuari ez zaio kontrolatzen ez duena gustatzen, arrotz egiten zaio. Herriaren adierazpenekin ez daude eroso, beren interesetara egokitzea nahi dute, men egitea. Oraingoa ez da lehenengo aldia. Ez dugu ahaztuko Poxta Zaharrek sortutako Miela lapurtu eta despolitizatu izana edota gaztetxea bihurtu zen eraikina desegin izana. Herria geldirik nahi dute, inor ez dadila mugitu, denak berdin jarrai dezan.

Guk ordea, urrutiegi iritsi direla pentsatzen dugu. Hilabeteetan zehar beste alde batera begiratu ondoren, ez digute beste aukerarik utzi, nahikoa dela diogu. Jarrera bakezalea erakutsi nahi dute, baina horren atzean inposaketak daude. Negoziazioa irekita dago bai, baina beren aurpegia zuzitzeko komunikatuak zabaltzen jarraitzen dute.

Ez gara nazkatuta gauden bakarrik. Eskatu gabeko elkartasuna jaso dugu, hainbat eragilek ere euren ekintzak alde batera utzita. Eskerrak eman nahi dizkizuegu zuei denoi. Argi daukagu zergatik iritsi garen honaino eta bidea oraindik ez dela bukatu. Denontzako kolpea izan da txosnak ez jartzea eta betiko festak ez edukitzea, baina lortzen gabiltzanak erakusten digu egoerak hori eskatzen zuela. Urnietako errealitateak eskatzen digu elkarrekin antolatzea, gauzak aldatzeko lanean jarraitzea, borrokatzea.

Ez dute lortuko, beharrezko baldintzak lortu arte ez gara isilduko. Urteetan zehar borrokatutako espazio herrikoi, anitz eta parte-hartzaileak hala izaten jarraituko du.

Ez gaude irizpide teknikoaren kontra, herria denona den heinean, denon ongizatea bilatzearen alde gaude. Ez dugu inoiz arategi mehatxatzaile eta jazartzaile bat onartuko. Herriatik sortu diren antolakuntza forma zein kolektiboek zilegitasun osoa dute adierazteko, baita parte hartzeko ere.

Gauzak horrela, irmoki salatu nahi dugu Udalaren jarrera prozesu luze honetan. Hasieran gure eskariak mesprextatuz, ondoren korrika eta presaka jaiak nola edo hala ateratzeko beharra izanez eta, azkenik, txosnagunea ez egotearen ardura Txosna Batzordeari egotziz. Bide honetan, autokritikaren zantzurik ez.

Batzordea osatzen dugun eragileak gara lehen interesatuak txosnagunea aurrera atera dadin. Hori bai, denak ez du balio, eta Txosna Batzordea osatzen dugunon lan egiteko modua eta antolakuntza errespetatzen ez badituzte, jai dute”.



Unax Altuna Atxaga eta Noa Aranburu Romero izan dira aurtengo Alkate Txikiak. AIURRI

Ekitaldi ugari, egunotan

Hasi bezala, amaitu dira, jada, herriko jai nagusiak, Sanmielak. Bost eguneko egitarauaren ondoren, Arrosarioko Ama Birjinaren ohorezko jaiak izango dira datorren asteburuan

Erredakzioa URNIETA

Aurten, bost eguneko egitaraua izan dute Sanmielek: ostegunean ekin eta astelehenera bitarte, goizean goizetik hasi eta gaueko ordu txikietara luzatuta, askotariko hitzorduak izan ditu Urnietako Udalak prestatutako egitarauak.

Ekitaldi guztien artetik, azpimarratzekoa da, jaien azken egunean, 0KM egitasmoaren parte diren ekoizleei egindako omenaldi instituzionala: lehen sektoreko kideek urte osoan egiten duten lanari aitortza egite aldera, agerraldia egin zuten San Migel egunean udal txeko areto nagusian. Bertan, Adarrazpi, Errekalde, Gurutzeta, Goiburu eta Urtzi Telleria izan ziren protagonista bereziak, udal ordezkariekin zein senitartekoekin batera.

Musika eta kirola

Ohikoa den bezala, besteak beste, musika eta kirol-hitzorduak nabarmendu dira, batez ere, aurtengo Sanmieletan. Hala San Juan plazatik harago herriko txoko ezberdinetara iritsi dira hitzorduak.



UKEko pilotariak, Kontzejupeko finalaren ondoren. AIURRI



Skate-festa izan zen, Mannequin taldeak antolatuta. AIURRI



Eskualdeko txistulariak gonbidatu zituen Txanbolinek, igandean. AIURRI



Danbor hotsez bete zuten herria Magale ikastetxeko ikasleek. AIURRI



Urdanborreko kideak, larunbat arratsaldean. AIURRI



Urnietako
udala



Omenaldi instituzionala egin zieten udal ordezkariak, tokiko ekoizleei. AIURRI



Erraldioen konpartsako kideak. AIURRI



Eskulanak, Bosko Anitz aisialdi-taldearen eskutik. AIURRI



Dantzaldia, Elkarteen Etxean. AIURRI



Puro Relajo taldearen kontzertua, jaiei amaiera eman aurretik. AIURRI



Barrenetxea, aizkora-lanetan. AIURRI



Emakumeen Kuadrillako kideak. AIURRI



Larunbat gauean Urnietako plazan ariko da, taldeak lagunduta. TTAP

“Etxeko egongelatik jende askoren aurrean jotzera igaro naiz, bat-batean”

JOKIN PINATXO "JANUS LESTER" KANTARIA

Udan Euskal Herriko txoko askotara iritsi da Janus Lester taldearen zuzenekoak. Kimikaria, ikasketez, Jokin Pinatxoaren kantuek ere kimika berezia dutela esan daiteke

Jon Ander Ubeda TTAP

Denbora tarte laburrean, ehunka musikazale bilakatu dira kantari nafarraren jarraitzaile. Jokin edo Janus, nola deitu behar zaitut?

Bi modutara dei nazakezu. Beti izan naiz Jokin, baina orain, bat-batean, bi errealitate horiek partekatzen ditut.

Kaletik zoazela baten batek Janus deituz gero, bira egiten duzu?

Bai, buelta ematen dut.

Ezagutu ditut artista batzuk, ibilbide bat osatu dutenak, izen propioa eta alter ego artistikoa partekatzen dutenak. Eta aitortu izan didate halako krisia izan dutela ezin bereizi dutelako persona eta artista. Zure kasuan, azti jokatu zenuen. Zer dela eta erabaki zenuen Janus Lesterren izena erabiltzea?

Zalantzan jarri nuen. Gogoan dut, taldekideekin solasean, Jokin izenarekin edo Jokin Pinatxorekin plazara ateratzea

pentsatzen ari nintzela. Gogoan dut bertigoia sentitu nuela eta egitasmoak aurrera egingo zuela jakin gabe –jakiterik ez zegoelako–, izen bat bilatzen aritu nintzen. Proiektuari begira nengoelako eta ez, hainbeste, niri. Gauza da denborarekin, egitasmoaren izen hori nire pertsonarekin identifikatzen duela jendeak. Horrela deitzen didate. Eboluzio natural hori gertatu da.

Eta nola daramazu bizitzen ari zarena? Zure ibilbide artistikoa laburra bezain meteorikoa izaten ari delako.

Ohitzen ari naiz oraindik. Bi urte eta erdi dira, lehenengo diskoa 2022ko bukaeran atera genuelako. Kristoren zortea izan genuen lehenengo diskoarekin: ehun kontzertu egin genituen eta biraren amaieran lortutakoaz jabetzen hasi ginen. Orain, bigarren diskoarekin, antzokietan jende asko batzen ari gara. Etxeko egongelatik jende askoren aurrean jotzera igaro naiz, bat-batean. Egoera berrira ohitzen ari naiz, esaterako, jendeak kalean ezagutzea edo zure izena izen publiko bihurtu dela ohituzera. Intseguritate berriak agertu dira, saiatzen zara dena zaintzen edo kontrolatzen baina ez da posible. Oreka hori bilatu nahian nabil.

Proposamenak ez dira falta eta oso bakanak dira horrelako arrakasta lortzen dutenak.

Oso kontziente naiz dudan zortearrekin. Janus Lesterren aurretik Azken Trena izeneko taldean aritu nintzen, lagun artean Bera herrian sortu genuena. Ni egon naiz beste aldean, udal guztietara deika, txosnagune guztietara deika, zure burua saltzen jotzeko aukera izateko. Oraingoa oso bestelakoa da eta orain programatzaileak deika dauzkagu gu bertara jotzera joan nahi dutelako. Orduan, oso kontziente naiz dugun zortiaz. Egia da ere ikaragarritzko lana egiten dugula taldea aurrera eramateko. Ehun taldetik, akaso, batek du guk bizi dugun hori sentitzeko aukera eta saiatzen gara hori baloratzen. Kontzerturo eta disko bakoitzeko gure bertsiorik onena ematen saiatzen gara, zalantzarik gabe.

Ikasketak egin dituzu eta kimika alorreko tesia aurkeztu duzu. Datosen hilabeteetan musikaren bidetik jarraitzea buruan duzu, ezta?

Bizitzak hautua hartu behar izatera eraman nau. Lehen bizitza gradu guztia kimikan egin dut, karrera hasi nuenetik doktoretza amaitu bitarte, ia bederatzi urte izan dira. Eta, bat-batean, Janus Lesterrekin jabetu naiz nere ibilbidea egin dezakedala eta hautua egiteko momentua iritsi zait. Musikaren alde egin dut, ez baldin badut hartzen noizbait damutuko naitzela seguru. Bertigoia sentitu dut, ez delako erraza inondik

inora musikaz eta eszenatik bizitzea. Baina uste dut hau dela momentua eta horrek emango didala denbora eta espazioa lasaigo sortzeko. Lehen, eguna laborategian pasa eta gauean etxera iristean, orduan hartzen nuen sormenerako tartea. Eta, egia esan, bizitza berri honetara ohitzeko gogoz nago.

Ikasketen bidez egin duzun ibilbide horrekin oso gustura zinen eta, era berean, orain musikan aritzeko aukera hori daukazu. Ez da batere txarra zure egoera, gustuko bi aukeren artean erabaki behar izana. Zalantzarik gabe. Ematen du kexatzen ari naizela, baina inondik ere ez. Banago Janus Lesterren eta nire beste alternatiba bada doktoretza batean oinarritutako zerbait. Bietan badut barrutik zerbait mugiarazten nauen hori. Musikaren hautua egin dut eta ez banago eroso beste bide hori hartzeko aukera dut. Pozik, nola ez, bi alternatiba edukitzearekin.

Eta etxean nola bizi dute egoera? Musikari oso lotutako familia baita zuena.

Nik uste dut egoerak ni harritu nauen bezala, beraiei ere modu berean eragin diela. Nire gurasoak, batez ere, etxekoen jarraitzaile handienak izan dira beti: Estitxu arrebarena eta baita nireak ere. Aurreko taldearekin oroitzen naiz Arrasateko taberna batean jo genuela, 6 pertsona egongo ginen kontzertua ikusten, eta haietako bi nire gurasoak ziren. Ez dakit non jo eta nire gurasoak han izaten ziren. Janus Lesterrekin Madrilen jo genuen eta asteburua baliatu zuten gu hara ikustera joateko.

Bizi dudana "subidoi" hori jendeak gure abestiak kantatzen edo dantzatzen ikustea, gurasoek berdin bizi dute. Beraiekin bizi naiz eta beraiek entzuten dituzte abestien lehen bertsioak. Etxean abesten ditut, lehenik, eta gero ikusten dute kantu horiek jendarteak abesten dituela. Oso pozik daude eta Estitxu nire arreba ere bai. Estitxu izan da nire irakaslerik handiena, zalantzarik gabe. Hunkitu egiten da kontzertu batera etorri eta gure musikak duen harrera ikusita. Eta baita nik oholtza gainean zenbat gozatzen dudana ikusten duenean ere. Garrantzi handia ematen diot horri, ikaragarri gozatzen dudalako oholtza gainean.



Euskal herrian barrena igaro ostean, disko berriko birarekin geldialdia egingo dute Urnietan. TTAP

Lehen diskoa egitea ez baita erraza, baina bigarrena argitara ematea erronka handiagoa da. "Lorea" aurkezteko zorian zinela izan zenuen beldur artistikoa?

Guztiz. Ez dizut gezurrik esango, izan nuen beldur hori. Lehenengo diskoa nahiko modu askean konposatu nuelako: gorputzak eskatzen zidana idatzi, eta aurrera. Bigarren diskoa ere horrela egin dut, baina banuen atzean zama hori. Jendeak zer esperoko duen Janusen bigarren diskoa entzutean. Uste nuen jendeak itxarongo zuela disko dantzagarria izatea, eta, "Lore" ez da bereziki dantzagarria. Kantagarriagoak dira, akaso, kantuen konponketa oso ezberdina da eta haize-sekzioa beste plano batean ageri da. Banuen urduritasun puntu hori, ea jendeari disko honekin "bajoitxo" emango zion. Banuen beldur hori eta egia da diskoa argitara eman baino lehen konpartitu nuela konfiantzazko hainbatekin. Entzun nahi duzun hori esango ez dizutenak dira eta denen erantzuna antzekoa zen: zein ezberdina den baina zeinen ondo zueden hainbat gauza. Konfiantzazko eta hurbileko haiengandik jasotako feedback horri esker, urduritasun denak kendu nituen. Diskoa atera berritan, bueltan jaso nuen harrera oso-oso ona izan da. Azken batean egiten dugu musika, lehenik eta behin, guretzat. Dudarik gabe. Baina behin plazaratzen duzula, nahi duzu konexio hori lortu

publikoarekin, bestela ez zenuke aterako. Bestela, nire logelan entzungo nituzke abestiak eta listo. Baina, lehen diskoarekin bezala, entzulegoarekin berriro zubi hori badagoela ikustean lasaitu nintzen. Egia esan, hau guztia gertatu da musikatik bizitzeko hautua hartu izanarekin. Nahastu zitzaizkidan sentimendu dezente eta urduri samar ibili nintzen.

Zure kantuekin eta doinuekin identifikatzen da jarraitzaile ugari. Zure ahotsa sendoa da baina, era berean, hegalaria da. Nola definituko zenuke zerorrek?

Jende askok aipatu dit hori eta lehenengo diskoan ez nintzen guztiz kontziente izan. Lehenengo erronka izan zen. Azken trena aurreko taldean jorratzen genuen pop-rock estilo bat eta nire ahotsarekin ez nuen hainbeste arriskatzeko.

"Ez zaitzala loak harrapatu" diskoan proba egin nuen lehen falseteak egiten, ahotsarekin kolore ezberdinak bilatzen. Jolasean aritu nintzen eta oso gustura sentitu nintzen. Konfiantza hartu nuen lehenengo diskoarekin eta "Lore" diskoan joera hori harago eramaten ahalagindu naiz. Abestiak jantzi ditut ahotsaren inguruan. Prozesu horretan bada ni eroso sentiarazten nauen zerbait.

Bereziki zaintzen duzu ahotsa?

Askok zaintzen dut eztarria. Kontzientzia handia hartu nuen lehen diskoarekin hasita. Ez dut oso erraz galtzen ahotsa baina

abesti batzuetako melodiak oso exigenteak dira eta ahotsa pittin bat galtzearekin asko sumatzen dut. Alde handia dago, emanaldia gozatzetik tiraka ibiltzera pasa zaitezke eta horregatik ahotsa asko zaintzen dut. Kontzertuen inguruko egunetan loa, hidratazioa lehenesten dut. Eta kontzertu egunean nahiko isilik egoten naiz. Berezkoa dut bolumen handia hitz egiterakoan. Egin izan ditugu hiru kontzertu jarraian eta jendearekin harremanetan ordu asko ematen ditut. Saiatzen naiz ahotsa gehiegi ez bortxatzen, kontzertua nahiko exigentea delako.

Bortzirietatik Euskal Herri osora zabaldu da zure musika. Esperientziak badu gauza bat ona: musikaren bidez Euskal Herria ezagutzen ari zara. Aretoak, pertsonak, herriak...

Bai, bikaina da hori guztia bizitzea. Aretoei dagokionez, barrutik ezagutzen ditut orain lehen ikusle modura ezagututako aretoak. Bilboko Kafe Antzokia, Dabadaba... Areto horietan milioi bat bider egon naiz, ohol-tza azpian. Kamerinoak ezagutzen ditut orain. Bestalde, musikazale zarenean ez gara jabetzen, baina taldearekin zoazenean jabetzen zara kontzertu bat aurrera eramateko zenbat jende dagoen lanean. Atzekaldean lanean dabilen jende hori ikustea gogoko dut. Meritua guretzat izan ohi da baina bada jendea emanaldia hasi baino hamar ordu lehenago lanean hasi dena.

ASTEBURUKO HITZORDUAK

URRIAK 3

LARUNBATA

11:00-13:00 Bizikleta festa, 2-12 urtekoentzat, Egape ikastolan.

16:00-17:15 Dantza urbanoen ikastaroa, Plazido Muxika plazan. Hastapen maila.

16:00-17:15 Dantza urbanoen ikastaroa, Plazido Muxika plazan. Maila ertaina.

18:00 Eskupilota jaialdia, udal pilotalekuan.

20:15 Dantza urbanoen erakustaldia, San Juan kalean.

23:00 Janus Lester, plazan.

AEKren erronka, igande arratsaldean

Ikasturteari hasiera emateko, "Asma ezazu" erronka izango da igande arratsaldean, San Juan plazan, herriko AEK-k antolatuta: sagarrez betetako poltsaren pisua asmatzen duenak edo gehien gerturatzen denak saria jasoko du. Arratsaldeko 18:00etan egingo dute hitzordua eta bertan izango dira, era berean, Mintzlagun programako kideak, beren urteko lehen topaketarekin.

URRIAK 4

IGANDEA BASERRITARREN EGUNA

12:00 Meza Nagusia Mikel Goiaingeruaren elizan Arrosarioko Ama Birjinaren omenez.

12:00 Munduko ardoen dastaketa, Kontzejupean.

18:00 Asma ezazu... erronka, plazan.

18:00-20:30 Txekor-jate solidarioa eta Iratzar taldea, plazan. Bildutako dirua Aurrera Markel ekimenara bideratuko da.

18:30 Zesta punta eta erremonte iaialdia, pilotalekuan.

Bagara talde feministaren oharra

Bigarren urtez, "Izan zirelako, gara. Galerako, izango dira" kalejira antolatzeke asmoa zeukan asteburu honetarako Bagarak. Elkartasunezko keinu-sortara eutsi eta hitzordua bertan behe-erazteko erabakia hartu dute: "Partaidetzan eta harreman parekideetan oinarrituz antolatutako jaien alde gaude. Hori bermatu dadin, Udal Gobernuaren jarrera-aldaketa eskatzen dugu".





Xoxokako bizilagunak, iazko Gau Sorpresan. AIURRI

Erredakzioa URNIETA

Behin iraila igarota, azken txanpara ari da iristen herriko festen egitaraua. Xoxokako auzotarrek hartuko dute lekukoa: urriaren 6an hasita, 12ra bitarte iraungo du festak mendialdeko auzoan.

Astelehenean emango diote hasiera festari, herri-kirol erakustaldiarekin. Bertan izango dira, lehian, Beñat Telleria eta Julen Gabirondo, Xabat Olaizola eta Ugaitz Mugerzaren aurka. Oiamarko trikitilariak ipiniko dute giroa plazan. Egun horretako egitaraua biribildu eta tripa betetzeko asmoz, bazkari herrikoia egingo dute Adarra jatetxean, Mikel Artolaren eta Unai Gaztelumendiren bertsoak lagun.

Bizpahiru eguneko atsedena hartuta, ostegunean itzuliko

Jaiei ekiteko prest dira

Urriaren 6an hasita 12ra bitarte iraungo dute, aurtan, Xoxokako festek. Orotara, bost eguneko egitaraua osatu du auzoko Jai Batzordeak, adin eta guztiei begira. Ostiral eta larunbatean autobus-zerbitzua izango da Urnietatik

da festa auzora. Zahagi ardoa izango da 20:30ean Xoxokako Eskolan eta edaria doan bada ere, antolakuntzatik abisua

pasa dute: jatekoa nork bere etxetik eraman beharko du. Ondoren, festetan protagonismo berezia daukan hitzordua

egingo da, Gau Sorpresa, hain zuzen ere.

Ostiralean, arratsaldeko 18:00etan ekingo diote egitaraua-

ri, herri-kirolak eta crossfita uztarten dituen erronkarekin. Urtero legez, bertsoek hartuko dute iluntzea: Xoxokako plazan izango da bilkura, Andoni Re-kondo eta Andoni Mujika "Anatx" bertsolariekin. Gaueko hitzorduei begira, Mallet taldea eta DJ Oat-tolo egongo dira oholtzan.

Hamaiketakoak eta puzgarriak irekiko dute igandeko egitaraua. Egurdiko 12:30ean aizkora-erakustaldian izango dira Igoien eta Laiene Pikabea, Malen Barrenetxea eta Oier Mitxelenaren aurka. Arratsaldean makina bat hitzordu izango dira auzoan: mus-txapelketa, puzgarriak, magia-ikuskizuna, toka eta karabina txapelketa... Betizu-jatearekin egingo dute jauzi gaueko eskaintzara: Itzal taldea eta DJ Gio egongo dira.

Igandean, Egape Dantza Taldearen erakustaldia izango da egurdiko 12:00etan, bai eta meza nagusia ere, 13:00etan. Gerora, bilkura egingo dute auzoko gazteek arratsaldeko 17:00etan, herri-kiroletan aritzeko. Ospakizunari amaiera emateko, sagardodastaketa zein Iruzta taldearen kontzertuak izango dira.

Autobus-zerbitzua

Interesa dutenentzat, autobus-zerbitzua izango da urriaren 10ean eta 11n. Autobus geltokia Elkarleen Etxearen ondoko biribilgunean egongo da eta honako hauek izango dira ordu-tegiak:

- Urriak 10: Urnieta - Xoxoka 17:30, 20:00 eta 1:00
- Urriak 10: Xoxoka - Urnieta 20:15, 01:15, 04:30 eta 06:30
- Urriak 11: Urnieta - Xoxoka 16:30, 20:00 eta 01:00
- Urriak 11: Xoxoka - Urnieta 20:30, 01:15, 03:30 eta 06:30

AIURRI
BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA



www.aiurri.eus

Aiurri eskuragarri:
Etxez etxeko harpidetza-sistema. Andoainen urte osoko harpidetza-saria 50 eurokoa da. Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

Egoitza Orokorra:
Arantzibia plaza, 4/5-behea. 20140, Andoain. Tel.: 943 300 732. andoain@aiurri.eus www.aiurri.eus

Zuzendaria: Jon Ander Ubeda.

Erredaktoreak: Xabier Lasa, Alba Cabrera Jauregi.

Maketatzailea: Maddi Truxuelo.

Kudeaketa, harpidetza:
Garbiñe Ugartemendia. idazkaritza@aiurri.eus

Publizitatea: Fer Irazu. publizitatea@aiurri.eus

Banatzaleak: Rocio Arias (Andoain), Axun Jauregi, Jeray Gonzalez (Urnietak).

Diseinua: Goiena / TOKIKOM.

Zorion agurrak, merkatu txikia:
diseinua@aiurri.eus | www.aiurri.eus. Whatsapp-a: 619 163 537.

Lege Gordailua: SS-1078/04.

ISSN: 1698-4870.

Tirada: 4.000 ale.

Inprimategia: Zeroa Multimedia.

EKOIZLEA:



ALJATUAK:



BI UDALERRIEN BABESAREKIN ARGITARATZEN DA:



DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENA:



BABESLEAK:

Aiurriko harpidedunak
ezinbestekoak dira.

ZIURTAGIRIA:



andoaINDARRA
euskaraz

XOXOKAKO JAIK

URRIAK 6

ASTELEHENA

- 12:00 Festen hasiera
- 12:30 Herri Kirolak: Beñat Telleria eta Julen Gabirondo - Xabat Olaizola Eta Ugaitz Mugerza.
- 14:00 Bazkari herrikoia Mikel Artola eta Unai Gaztelumendi bertsolariekin Adarra jatetxean.

URRIAK 9

OSTEGUNA

- 20:30 Zahagi-ardoa Xoxokako eskolan.
- 22:30 Gau sorpresa.

URRIAK 10

OSTIRALA

- 18:00 Herri kirolak-Crossfit apustua.
- 20:30 Bertso-afaria, Xoxokako plazan, Andoni Rekondo eta Andoni Mujika (Anatx)-rekin.
- 01:00 Mallet taldea.
- 02:30 Gaupasa DJ Oattolo.

URRIAK 11

LARUNBATA

- 11:30 Hamaiketakoa Xoxokako eskolan.
- 11:30 Puzgarriak haurrentzat.



Sagardo dastaketa izango da igandean arratsaldeko 18:00tan hasita. AIURRI

- 12:30 Aizkora erakustaldia, bikoteka: Igoñ Pikabea Laiene Pikabea // Oier Mitxelena Malen Barrenetxea.
- 15:00 Mus azkarra Txapelketa Xoxokako eskolan. Izena emateko epea: 14:15-14:45.
- 16:00 Gaztelu puzgarriak haurrentzat.

- 17:00 Andoni magoa.
- 17:30 Toka eta karabina txapelketa eskola ondoan. Izena emateko epea, 16:45-17:15 artean. Jarraian txokolatea izango da haur guztientzat.
- 20:30 Betizu jatea, Xoxokako plazan.
- 00:30 Gaupasa Itzal taldearen eskutik.
- 03:30 DJ Gio.

URRIAK 12

IGANDEA

- 12:00 Egape Dantza Taldearen erakustaldia.
- 13:00 Meza Nagusia.
- 17:30 Herri kirol lehiaketa auzoko gazteen artean.
- 18:00 Sagardo dastaketa auzoko sagardogileekin.
- 18:15 Iruzta taldea.

Eskualdeko informazioa,
orain ere, Aiurriren
WhatsApp kanaletan

Batu zaitez!

Aiurri Aiztondo

Aiurri Andoain

Aiurri Urnieta



Gobern taldeak egin zuen aurkezpena, astearte eguerdian. AIURRI

A15 eta N1 errepideen arteko lotura, aztergai

Andoaingo Udaleko Gobernu-taldeak, etorkizuneko lotunea dela-eta, gizarteratze-prozesua iragarri zuen. Datozen egunetarako erakusketa eta lau hitzaldi iragarri dituzte eta, luze gabe, herritarrei iritzia emateko aukera eman nahi dietela aurreratu zuten

Erredakzioa ANDOAIN

Urriaren 7tik 22ra, A-15 eta N1 errepideen loturaren gaineko bi alternatiben erakusketa konparatiboa ikusgai izango da Bastero Kulturgunean eta, horrez gain, lau solasaldi antolatu dituzte. Adituak deitu dituzte antzeko egitasmoek ingurumenean, osasunean, ekonomian

eta hirigintzan zer nola eragin-godu duten aztertzeko. Ikerlariak eta unibertsitateko irakasleak dira, gehien gehienak.

Gobernu-taldearen agerraldia

Asteartean EH Bilduko ordezkariak agertu zen hedabideen aurrean, asmoen berri emateko. "Udal Gobernuaren asmoa he-

rritarrei ahotsa ematea, iritziak jasotzea eta Udal politikak guztion artean marraztea" zela adierazi zuen Andoni Alvarez alkateak. Ez da izango agerraldi bakarra, izan ere, datorren astelehenerako beste bat deitu du alkateak. Izan ere, egitasmo honen barnean herritarren iritzia nola jaso zehaztuko dute.

Martxa ibiltaria antolatu dute

Gipuzkoako Foru Aldundiak Bazkardon egin nahi duen "Lazo" proiektuaren aurka eta saihesbidearen alde agertzen den "Errespetatu Andoaingo" plataformak martxa ibiltaria antolatu du, datorren urriaren 11rako. Karrika auzotik Mimendi kalera martxa egingo dute "Andoaingo etorkizuna guztien esku dago" lelopean, 11:00etan hasita.



AIURRI

Hitzaldi-sorta, urrian, Basteron



Lozano. EHU

Urriak 7, asteartea

"Ingurumena eta lurralde inpaktuaren azterketa". Pello Lozano, EHUKo irakaslea eta geografoa.



Lertxundi. EHU

Urriak 9, osteguna

"Errepidearen kutsaduraren eragina osasunean". Aitana Lertxundi, EHUKo medikuntza eta erizaintza fakultateko irakasle eta ikerlaria.



Abad Urruzola. ABAD

Urriak 14, asteartea

"Alternatiba ezberdinen itzulera ekonomikoaren azterketa". Jose Maria Abad, abokatu urbanista.



Gortazar. TOKIKOM

Urriak 22, asteazkena

"Hirigintza ikuspegia". Ander Gortazar, arkitektoa, hirigintza, lurralde antolamenduan, mugikortasunean eta Geografia Informazio Sistemetan aditua.



Udal eraikinetan eta etxez etxe banatu zuten eskuorria. AIURRI

Aurrerago, iritzi-bilketa

Herritarrek iritzia emateko aukera izango dute, online formatuan, urriaren 7tik 13ra bitarte eta, aurrez aurre, urriaren 15etik 22ra. Aste honetako agerraldian iragarri zutenez, datorren astelehenean –urriak 6– emango ditu xehetasun guztiak gobernu taldeak.

Adiorik ez, Joxe Manuel

102 urterekin, igande goizean hil zen Joxe Manuel Erkizia Uria andoaindarra. Sasoiko egon zen ia azkenerarte eta, etxekoek adierazi zutenez, bakean joan da. Aski ezaguna zen Kaletxikin eta Andoainen, kalean gora eta behera ibiltzeko ohiturari eutsi ziolako

Erredakzioa ANDOAIN
Bizitza oparoa izan du Joxe Manuelek, 102 urte bete bitarte, bizitza beteaz gozatu ahal izan zuelako. Bere kabuz moldatzen zen kalera irteteko eta bere pasioez gozatzeko: Ontza elkartera eta Galarretara joateko ohiturari eutsi zion, azkenerarte. Zaletasunez gozatzen zekien pertsona zen. Esaterako, mus jokalaria amorratua zen eta erre-monteari debozio berezia zion. Bi ertz horiez gain, ezin aipatu gabe utzi abertzaletasuna. EAJ-PNVko afiliatua zen eta, iaz, 101 urterekin, 2024ko Alderdi Eguneko protagonistakoa izan zen. Erkiziaren heriotzak aurtengo Alderdi Egunarekin bat egin zuen eta Aitor Esteban EAJ-PNVko lehendakariak haren aldeko hitzak izan zituen. Txalo zaparrada jaso zuen. Une horren bideoa ikusgai dago Aiurri.eus webgunean.

Memoria historikoa berreskuratzeko xede zuen ekimenean parte hartu zuen Andoainen, beste hainbat herrikiderekin batera. Iragan kontuak bildu zituen "Atzoko Andoain eta andoaindarrak" argitalpeneko



Erkizia, bigarren etxea zuen Ontza elkarte. AIURRI

protagonista izan zen eta alboan izan zituen Miren Zarraga, Bixente Olano, Iñaki Arregi, Joxe Mari Olazabal, Loren Navarro Roke Ansa, Jose Mari Amutxas-

tegi eta abar. XX. mendearen lekukotza aparta da Larramendi Bazkunak argitara eman eta Jone Larrañaga kazetariak zuzendu zuena.



Argazkia ekainekoa da, Ontza elkarteko mus txapelketan ateratakoa: Erkizia, Rafa-Jose Luis txapeldunak eta Urdangarin. ONTZA

Kaletxikiko andoaindarra



Ontza elkartean musean aritzea gogoko zuen. ENEKO URDANGARIN

Kartazalea Mendiluzek eskaini zion bertsoa ezin aproposagoa da "Bizitzari enbido, ezinari paso, pare ederrak eta jokoan eraso. Dena ez zen gozoa izango akaso, baina zure elkarte eta zure auzo, bihotzez gu guztion zorionak jaso".



Galarretara joateko ohiturari eutsi zion, ia azkenerarte. AIURRI

Pilotazalea Erremontea biziki maite zuen. 100 urte betetzearan Barrenetxea IVak elastikoa eta zesta oparitu zizkion. Argazkian, Joxe Manuel Erkizia, Miren eta Joseba seme-alabarekin, eta Beñat bilobarekin.



Aitor Esteban EAJ-PNVko lehendakariarekin, Gernikan. EAJ-PNV

Abertzalea Alderdi Egunean zendu zen Joxe Manuel. Iaz, esaterako, EAJkoen ospakizuneko protagonista izan zen oholdza gainera igo baitzen Imanol Pradales lehendakariak lagunduta. Argazkian, Esteban alboan zuela, Gernikako Jai Alairen atarian.

Nahia Patinoren alde

Artrogriposis gaixotasun arraroa daukan Nahia Patino Arancon haurraren aldeko elkartasun jaialdia aurkeztu berri dute. Urriaren 19an 12:00etatik aurrera ospatuko da eta sarrerak 5 eurotan jarri dituzte salgai. Bastero kulturgunean, Urrats inprimategian eta Andoain Solidario elkarteak kideen mahaian (Eskola kalea) larunbat goizetan erosi ahal izango dira sarrerak. Bestalde, dohaintzak ere egin litezke, Rural Kutxa-Caja Ruralen honako kontu korronte zenbakian: ES88 3008 0159 8753 2893 1422.



AIURRI

Parte-hartze prozesua abiatu du Udalak

Andoaingo Emakumeen* Etxearen proiektua gauzatzeko asmoz, bost gogoeta-saioek osatzen duten parte-hartze prozesua abian jarriko du Udaleko Berdintasun Sailak, datozen hilabeteetan

Erredakzioa ANDOAIN

“Mugimendu Feministaren eskaera historiko bati” erantzunez, III. Berdintasun Planak jasotako Emakumeen* Etxearen proiektua gauzatu nahi du Udalak, Haizea Barandiaran Berdintasun zinegotziak, Sara Arruabarrena Berdintasun teknikariak eta Ianire Huizi Berdintasun dinamizatzaileak iragarri zutenenez, Plaza Morean egin zuten agerraldian. Marta Lasa (EH Bildu), Belen Moreno (PSE-EE) eta Txixu Ruiz (EAJ-PNV) zinegotziak ere agerraldian izan ziren.

Bost lan-saio

Hiru orduko bost lan-saio egingo dira; lehena urriaren 23an izango da, 17:00-20:00etara, Bastero Kulturguneako ekitaldi aretoan. Izen-ematea, urriak 2tik urriaren 17ra bitartean egongo da zabalik. Hiru modutara, Berdintasun Sailaren telefonora deituta (943 300 830), Urigain Etxeko bulegoan (astelehen eta



Agerraldia egin zuten Plaza Morean. AIURRI

asteazkenetan 12:00etatik 18:00etara, eta astearte eta ostegunetan 10:00etatik 16:00etara), edota,

online inprimaki baten bidez (kartelaren bidez zabalduko den QR bate eskutik).



AIURRI

Mugitu Andoain

Jarduera fisikoaren eta kirolaren onurak azpimarratu eta praktika horien sustapena helburu du “Mugitu Andoain!” ekimenak. Aurreko larunbatean egin zen, Udalak antolatuta eta herriko gizarte eta kirol elkarteek lagunduta. Kirol egokitua, mendi bizikleta, mendizaletasuna, gimnasia erritmikoa... Aukera zabala zen. Jardunaldiak eman zuena argazkiz eta bideoz jasota dago Aiurri.eus webgunean.



AIURRI



AIURRI

Eskubaloia, berriro martxan

Euskal Ligan ariko den Leizaran Ernio Inmobiliaria gizonetzkoen taldeak Ereintza Beissier hartuko du Andoainen, larunbat honetan, 17:00tan hasita. Igandean, senior mailako bigarren taldeak Txingudi Goserren aurka jokatuko du, Allurralden, 11:30ean hasita. Eta jubenil mailako emakumezkoak ere etxean ariko dira Saiekoren aurka. Igandean, 10:00etan hasita, Allurralden.



UKE

Euskalduna 3-1 Urnieta

Erregional gorengo mailako bigarren multzoan lehiatzen ari dira Andoaingo eta Urnietako taldeak. Igoera lortu du andoaindarek eta lehen jardunaldian Urnieta KE 3-1 garaitu zuten. Debuta, beraz, ezin hobeia izan da andoaindarrentzat.

Bigarren jardunaldian, Euskaldunak Usurbilgo zelaian jokatuko du. Igandean izango da 15:30ean hasita. Urnietak, aldiz, etxean jokatuko du Santo Tomas Lizeoaren aurka. Larunbatean, 18:15etan hasita.



ORIAMENDI

Juanenearen lehen txapela

Aritz Juanenea nafarra Eusko Label Banakako Txapelketako 17. txapeldun handia bihurtu da, Barrenetxea IV 30-27 irabazita. Bere lehen txapela da eta Endika Barrenetxeak ezin izan du hirugarrena irabazi. Merezimendu osoz lortu zuen txapela Saldiasko atzelariak. Lesio txikia izan zuen, gainera, baina eutsi zion partidari eta horri esker txapela jantzi zuen.



UKE

Berdinketarekin ekin diote ligari

1. Lurraldeko senior mailan Urnieta Artola harategiak berdinketarekin ekin zion ligari, Soraluze taldearen aurka 23-23 berdinduz. Liga martxan da eta larunbat honetan Txingudi Goibar taldearen kantxan ariko dira, arratsaldeko 17:30ean hasita.

Lehen taldearen oinarria beretsua da: talde gaztea eta partida bakoitzean borrokatzeko eta sailkapeneko goiko postuetatik gertu egoteko gogoz dagoena. Partida zaila izan zuten lehen jardunaldian, maila handiko aurkaria baita.



19. denboraldia martxan da

- "Aiurri" taldean emozioa ez da faltako. Bat egin gurekin, bat egin ehunka jokalarirekin!



HITZORDUAK

ASTEARTE EGUERDIA BAINO LEHEN IGORRI HITZORDUAK. Tel.: 943 300 732 / andoain@aiurri.eus

JAIK

URNIETA Festak

Lehen txanpa, asteburu honetan.
Jaien egitarau osoa, 7. orrialdean.
Urriaren 4an eta 5ean.

URNIETA Xoxokako jaiak

Lehen txanpa, astelehenean. Jaien
egitarau osoa, 9. orrialdean.
Urriaren 6an hasita.

IKUSKIZUNA

ANDOAIN Aresti, gogoan

"Gabriel Arestirekin" ikuskizuna,
Kandido Uranga eta Inazio
Tolosaren eskutik.
Urriak 3, ostirala.
19:30, Bastero Kulturunea.

AISIALDIA

ANDOAIN Udal Ludoteka berria

Belabi kaleko zerbitzu berria
urriaren 14an jarriko dute martxan.
Izen-ematea: Irailak 30-urriak 10.
E-posta: ludoteka@andoain.eus.

ANDOAIN Parketarrak

Jolasaren bitartez eta aisialdian
euskararen erabilera bultzatu nahi



Aranburu, Mujika, Arriola, Gozalo eta Huitzi dira Aidurü. **AJURRI**

ANDOAIN Aidurü musika taldea

"Andoaingo Euskera, Bihotzetik kalera" izenburupean, egoitza berria
eskuratze kanpaina murgilduta dabil Larramendi Bazkuna. Ostiral
honetan ekitaldia antolatu dute. Arratsaldeko 18:00tan hasiko da,
Kaimuturrean, Aiduru musika taldearen parte-hartzearekin..
Urriak 2, osteguna. 18:30, Kaimuturra.


duen ekimena. Datorren astean
hasita: 3-5 urte artekoentzat,
17:15etan. 6-9 urtekoentzat, berriz,
18:15etan.
Asteartero, Goikoplazan.
Asteazkenero, Zumea plazan.
Urriak 7-29.

KONTZERTUA

ANDOAIN Bastero Kafe

JAC Electric taldea bertsio
akustikoan ariko da.
Urriak 10, ostirala.
19:30, Bastero Kulturunea.


ZINEMA

**ANDOAIN****BASTERO****El cautivo**

Urriak 4, larunbata.
19:30.
Urriak 5, igandea.
19:30.
Urriak 6, astl.
17:00, 19:30.

Sablehortz

Euskaraz
Urriak 4, larunbata.
17:00.
Urriak 5, igandea.
17:00.



SINOPSISIA

El cautivo

Zuzendaria: Jose Mari Goenaga eta Aitor Arregi. **Aktoreak:** Julio Peña, Alessandro Borghi, Miguel Rellán, Luna Berroa, José Manuel Poga, Roberto Alamo. **Herrialdea:** Espainia (2025). **Hizkuntza:** Gaztelania. **Generoa:** Drama, abenturak. **Iraupena:** 133 m.



Amenabarren berriena

1575. urtea da. Miguel de Cervantes soldadu gaztea itsaso zabalean harrapatu dute korsario arabiarrek, eta Aljerera eraman dute gati. Bertan, bere familiak laster erreskaterik ordaintzen ez badu, heriotza krudela izango duela jakitun, Miguel-ek istorioak kontatzeko zaletasunean aurkituko du babeslekua. Bere kontakizun liluragarriek preso kideei itxaropena piztuko diete eta, azkenean, Aljerreko beldurgarri eta misteriozko den Hasan Baxa-ren arreta erakarriko dute; harekin harreman berezi bat garatzen hasiko da. Bien bitartean, kideen artean gatazkak areagotzen diren heinean, Miguel, bere baikortasun sendoak bultzatuta, ihesaldi ausart baten plana asmatzen hasiko da.

ITZULERA
Dejabu konpainia

Urriak 26, igandea
19:00. Sarobe, Urnieta

"Itzulera", Dejabu konpainiaren proiektu eszeniko berria,
umorez, poesiaz eta akzioz betetako antzezlan da.

Auto-fikziozko obra honetan, konpainiako kideek beren sormenaren
eta identitatearen zentzua zalantzan jarriko dute.
Konpainiak 2024an Mexikora egindako bidaia kontatzen du eta nola
bertan jazotako ustekabeko gertakari batek,
beren abenturaren norabidea aldatu zuen.

Zuzeneko road movie baten egitura du obrak eta etengabe jotzen
du errealitatearen eta fikzioaren artean. Eszenako aktoreez gain,
zinemagile batek zuzenean irudiak sortu eta proiektatuko ditu,
ikusleentzako emanaldi bakoitza esperientzia errepikaezin bihurtuz.
Ipuin bat, non irudikatutakoaren eta bizitakoaren arteko mugak
lausotzen diren, eta publikoa bidaia horren eta
bere emaitzaren parte izatera gonbidatzen den.

ZOKKETA

Aiurriko
harpidedun
izateak saria dakar

ANTZERKIA

AiurriKIDeen artean
2 sarrera zozkatuko ditugu

Parte hartzeko modua:

Idatzi **"ITZULERA"**, zure izen-abizenak eta bidali:

* WhatsApp: 619 163 537

* E-posta: diseinua@aiurri.eus

Okm:
batzen
gaituen
distantzia

Egin zaitez AiurriKIDE

AJURRI
KIDE



Kandido Uranga eta Inazio Tolosa. ARESTIREKIN

Aresti biziberrituko dute Urangak eta Tolosak

"Gabriel Arestirekin" ikuskizuna ostiral honetan da, 19:30ean hasita, Bastero Kulturgunean

Erredakzioa ANDOAIN

"Poesia herriarentzat egina dela aldarrikatzen du Gabriel Arestik. Herriak bere hitzak barneratzea nahi du, mailukadaka bada ere. Hitz horiek bizirik dira, eta hori gogorarazi nahi digu *Gabriel Arestirekin* ikuskizunak, antzezleen tresna soilez (ahotsa, gorputza, musika, sormena) eta esperimentatzeko bulkadaz sortutako antzezlanak", hitz horiek jaso ditu ekoiztetxeak antzezlana ezagutarazteko. Kandido Uranga eta Inazio Tolosa aktoreak igoko dira Bastero Kulturguneko oholtzara.

Miresmen handia zion Arestik garaikide zuen Rikardo Arregi andoaindarrari. Euskararen gerrilleroa deitu zion Gabriel Arestik Rikardori, bere heriotzaren harira eskainitako olerki batean. Hala deitu zion Udairegi bertsolariaren omenaldian Rikardok egindako hitzaldi sutuagatik. Hantxe zen ere Gabriel Aresti eta Andoaingo gazte hark harrituta utzi zuen bere indarragatik, bere nortasun handia eta ekiteko sendotasunagatik.

Antzezlana 19:30ean hasiko da, ostiral honetan, Basteron.

ZORION AGURRAK



ANDOAIN

Zorionak!

Irailaren 30ean 20 urte iadanik. Azkar pasa da denbora... Ondo-ondo pasa eta jarraitu jator eta irribarretsu, ez aldatu. Maite zaitugu potto. Muxu potoloak etxekoan partezi!



ANDOAIN

Zorionak bikote!

Aitonak irailaren 8an 85 urte eta Maddi irailaren 15ean 15 urte bete dituzue. Ea beste hainbeste elkarrekin gozatzeko gai garen. Eskerrik asko bikote, zareten bezala izateagatik. Jarraitu elkarri zaintzen eta maitatzen. Muxuak, etxekoak.

Bidali zorion-agurra eta argitaratuko dugu

- **Aiurri.eus** Fitxa bete "Zorion agurrak" atalean.
- **diseinua@aiurri.eus** mezua bidali -epostaz.
- **Arantzibia 4-5, behea** etor zaitez bulegora, Andoainera.
- **Whatsapp bidez:** 619 16 35 37

ESKELA

Serafin
TORRADO SAYANS



Andoaingo Udaleko
zinegotzia 2003-2007
legegintzaldian.



ANDOAINGO UDALA

Andoainen, 2025eko irailaren 26an

HERIOTZ-OHARRA

Joxe Manuel
ERKIZIA URIA jauna



Irailaren 28an hil zen, 102 urte zituela.

Atzoko Andoain ezagutzen
laia-laneko zokaina.
Abertzaletasunak izan baitzaitu
odola berritzeko zaina;
euskal sena zure izerdia

arau eta ipar, alajaina!
Sendia bihotzez maitatzen
zaharrak belauneakoak adina
Gogoan zauzkagu Joxe Manuel,
gizalegearen artzaina.

Manuel Larramendi Kultur Bazkuna.
Atzoko Andoain eta andoaindarrak argitalpenaren egunak gogoan!
Andoain, 2025eko irailak 30.

M. LARRAMENDI

ESKELAK JARTZEKO: 943 300 732
edo publizitatea@aiurri.eus

► Eskela mota guztiak Aiurri astekarian + Aiurri.eus-en: 140 € + BEZ /
Aiurriko harpidunentzako 90 € + BEZ

ZOKKETA

GABRIEL ARESTIREKIN

Kandido Uranga Inazio Tolosa

AiurriKIDeen artean 2 sarrera bikoitz zozkatu ditugu

Irabazleak:
Idoia Mendiluze eta
Beatriz Amondarain. Zorionak!

Okm:
batzen
gaituen
distantzia

Egin zaitez AiurriKIDE

AIURRI KIDE

Eskelak
Aiurriin:
90 euro

GAU BELTZA

ANDOAIN

2025

URRIAK 31, OSTIRALA

Eta **zuek?**
Zer
ospatzen
duzue?

